



DEBAKO ETA ITZIARKO AUZOKONPOSTAJEA

Orain arte jasotako **zalantza nagusienak eta beraien erantzunak** ondorengoak dira:

Zalantza	Erantzuna
Egituretzailearen kutxa zergatik ez dago itxita?	Egituretzailea konpost-gunera bustita gehituta ere bere egituretzaile eta materia lehortzaile funtzioa ondo betetzen du, dena nahastean tenperatura altuak lortzen ari baikara.
Euli txikiak agertu dira	Normala da euli txikiak agertzea, bertan baitute tenperatura egokia eta beharrezko elikagaiak. Momentu batzuetan, orain bezala, gehixeago egongo dira, prozesu honen fase honetan; hala ere, normalena gutxitzea izango da. Gainera, egituretzailearekin materia hezea tapatzeak eltxoak gutxitzen laguntzen du. Baina egituretzaile gehiegi erabiltzea ez da komeni.
Zergatik ezin dira poltsa biodegradagarriak bota?	Poltsa biodegradagarriak nahiz eta konpostatu daitezkeen, baldintza anaerobioak gertatzeko arrisku handiagoa sortzen dute. Gainera, konpost-gune bakoitzean familia asko zaudete parte hartzen eta hainbeste jenderen biohondakinen deskonposizio prozesua kontrolatzeak arazo gehiago sortu ahal dituelako erabaki da poltsak ez sartzea konpostatzera.